



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko irailaren 8ko bilkura

Bi mila eta hogeita bigarren urtean, irailaren zortzian, zortzietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, HEGUY Antton.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : PERUSANSENA Elodie.

Deialdiaren eguna : 2022ko irailaren 2a

Afitxatze eguna : 2022ko irailaren 2a

6. ERABAKIA: BAIGURA MENDI ELKARTEKO LAN POSTUAREN ATXIKITZEKO LAGUNTZA BATEN EMATEA (Nomenklatura: 7.10 - Beste)

Auzapezak Herri Biltzarrari jakinarazi dio herriari proposatu zaiola Gure Gainak partzuergoko kide izatea.

Partzuergoko kideak honakoak dira: Artzain Funtsen Elkartek (AFE/AFP) lurraldeko 5 mendiguneen herriak: Larla, Jara, Artzamendi, Baigura eta Iparla.

Partzuergoaren helburua da, etxaldeen, artzain funtsen elkarteen eta herrietako ekonomia sostengatzen eta bitarteko eremuak zaintzen dituzten ekonomia, laborantza eta bestelako proiektuen gauzatzeko ekintza kolektiboen inguruan trukatzeta eta partekatzea.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- **ERABAKI DU**, Gure Gainak partzuergoko kide izatea helburuen gutuna izenpetuz,
- **ERABAKI DU** Baigura Mendi Elkartea diruz laguntzea, hiru urtez urtean 2000 € emanaz 2022ko urriaren 1etik goiti, partzuergoko animatzaile postuaren ordaintzeko.
- **AGINDU DIO**, Auzapezari gai horri buruzko agiri oro izenpetzea.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 12

Balizko boz kopurua : 12

ALDE : 12

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gainera egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko irailaren 13an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2022/09/14an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/09/14an.